

HAUR HEZKUNTZAKO ZERBITZU PUBLIKOAREN KUDEAKETA ADJUDIKATZEKO LEHIAKETA IREKIA ARAUTZEN DUTEN KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA.

I. TITULUA

Kontratuari buruz oro har

1.- Helburua

Baldintza-agiri honen helburua da Eskoriatzako udalerrian, haur eskolako udal zerbitzuaren (0-3 urte bitartekoa, haur hezkuntzako 1. zikloa) ustiaketa adjudikatzeko lehiaketa deialdia arautu behar duten baldintza teknikoak arautzea. Udalak berariaz beregain hartzen duen gizarte eta hezkuntza zerbitzu hori **zeharkako kudeaketa erregimenean** emandakoa da **kontzesio bidez**, eta haurrari bere beharrei egokitutako eskolaurreko hezkuntza ematen dio. Horretarako, pedagogia teknikaririk egokienak erabili eta haurraren kultura eremuan kokatutako hezkuntza eskaintzen da.

2.- Jardun eremua

Komunitateko zerbitzua denez, Haur Eskola Eskoriatza herriko haur guztiei zabalik dago, eta komunitate osoaren beharrak bete behar ditu; plaza kopuruak baino ez du mugatuko zerbitzua.

Udalerriko eskariari erantzun eta gero, eskualdeko udalerrietako haurrei eman ahal izango die zerbitzua.

3.- Ordutegiak

Zerbitzua goizeko 7:30etan hasi eta arratsaldeko 6:00ak arte emango da.

Ordutegia gutxi gorabeherakoa da, eta azken erabakian aldaketak izan daitezke, bai zerbitzua hasterako orduan bai amaitzerakoan.

II. TITULUA

Hezkuntza eraikinak

4.- Hezkuntza eraikinen ezaugarriak

- Xedapen orokorrak. Eraikinek 1004/1991 dekretuak ezartzen dituen gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte.

- Bakarrik eskola erabilera izango duten eraikin independenteetan kokatuko da haur eskola, Errege Dekretu horretan jasotako salbuespenen kaltetan gabe.

- Instalazioek, Errege Dekretu horretan ezarritako baldintzez gain, indarrean dagoen legerian adierazitako higiene, akustika, bizigarritasun eta segurtasun baldintzak ere bete beharko dituzte.

- Instalazioek baldintza arkitektoniko egokiak izan beharko dituzte arazo fisikoak dituzten ikasleei sarbidea eta bertatik ibiltzea ahalbidetzeko, aplikagarri zaion legedian ezarritakoari jarraituz.

- Dekretuan adierazten den bezala, ikaspostu kopurutzat hartuko da irakasteko gutxieneko kalitate

baldintzak bermatuz zentro batek aldi berean har dezakeen haur kopurua.

b) Xedapen espezifikoak.-

- Zentroak gutxienez 3 unitate izan beharko ditu, eta instalazioei eta baldintza materialei buruzko baldintza hauek bete:

- 1.- Eskola erabilera bakarrik izango duten lokaletan kokatzea, eta kanpotik sarbide independentea izatea.
- 2.- Ikasgela bat unitate bakoitzeko azalera honekin: 2 metro koadro ikaspostu bakoitzeko, eta guztira, gutxienez, 30 metro koadro. Bi urtetik beherako haurrentzako ikasgelek hurrek atsedena hartu eta garbitzeko eremu bereziak izango dituzte .
- 2.- Janariak prestatzeko leku egoki bat. Urtebetetik beherako haurrik izanez gero, indarrean dagoen araudiak zehazten dituen ekipamenduak sartzeko gaitasuna izango du.
- 3.- 30 metro koadroko erabilera anitzeko ikasgela bat, hala behar izanez gero, jantokirako ere erabili ahal izango dena.
- 4.- Jolasleku bat bederatzi unitate edo frakzioko, haur eskolak baino ezingo duena erabili. Berorren azalera ezingo da izan, inolaz ere, 75 metro koadro baino txikiagoa.
- 5.- Komun bat ikasgelako, 2tik 3 urtera bitarteko haurrentzat. Ikasgelatik komun barrua ikusi ahal izan beharko da eta baita bertara sartu ere. Bi konketa eta bi komunontzi izango ditu.
- 6.- Komun bat langileentzat, haurren ikasgeletatik eta komunetatik aparte. Konketa, komunontzia eta dutxa izango ditu.
- 7.- Eskolak zuzendaritza, idazkaritza eta baimendutako ikaspostu kopuruaren araberean neurriko irakasle gela bat izango ditu.

5.- Haur ratioak ikasgelako

Urtebete baino gutxiago duten haurrentzako unitateak: 1/6-8.

Urte batetik 2 urtera bitarteko haurrentzako unitateak: 1/11-13.

Urte bitik 3 urtera bitarteko haurrentzako unitateak: 1/14-17.

III. TITULUA

Kontratu honetako zerbitzua behar bezala emateko behar beste langile izan beharko du enpresa emakidadunak.

6.- Irakasleen eta langileen titulazioa

Eskolak espezialitate bakoitzeko irakasleek emango dituzte. Enpresa emakidadunak hezkuntza-arreta egokia emateko kualifikatutako beste profesional batzuk ere izan beharko ditu, zehazki, funtzionamenduan dauden unitateak baino bat gehiago.

Sei unitate edo frakzio bakoitzean Haur Hezkuntzan espezializatutako irakasle bat edo eskolaurreko espezialitadedun Oinarriko Hezkuntza Orokorreko irakasle bat egon beharko da.

Aurreko atalean aipatzen diren profesional kualifikatuak honako hauek izango dira: haur hezkuntzan espezializatutako irakasleak edo hartzaindegietako espezialitatedun Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasleak.

Artikulu honetan aipatutako langile kualifikatuek zainduko dituzte uneoro haurrak.

Hizkuntza eskakizunak

Enpresa emakidaduneko profesionalen hizkuntz eskakizunak bat etorriko dira zentroak duen irakaskuntza elebidunaren ereduarekin: 1. hizkuntz eskakizuna eta 2. hizkuntz eskakizuna, edo baliokideak (47/1993 Dekretua, martxoaren 9koa, irakaspostuetarako hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun egunak zehazteko irizpideak finkatzen dituena).

Hezkuntza beharizan bereziak dituzten haurrak integratzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak hezkuntza administrazio aginpidedunak emango ditu.

Emakidari atxikita egongo dira, gutxienez, baldintza-agiri honetako 5. puntuan deskribatutako ondasunak. Ondasun horiek ezinbestekotzat jotzen dira haur eskola zerbitzua emateko.

IV. TITULUA

Haur eskola zerbitzuaren prezioak

7.- Haur eskolako hezkuntza zerbitzuaren prezioak.

Hiru prezio mota ezarri dira erabiltzaileen adina kontuan izanda:

Jornada osoa	Jornada erdia
0-1 urte.- 228,95 €/hilean	0-1 urte.- 171,84 €/hilean
1-2 urte.-196,54 €/hilean	1-2 urte.-147,40 €/hilean
2-3 urte.- 77,43 €/hilean	2-3 urte.- 0 €/hilean

- Ikasturtea irailaren 1etik uztailaren 30era artekoa izango da, eta abuztuan ez da eskolarik edo zerbitzurik emango.

- Zerbitzu honen erabiltzaileak 11 hilabete ordaindu behar ditu. Ordainketa erregelamenduan ezarritako moduan egingo da.

Janaria, jantokia, garraioa eta abar moduko laguntza-zerbitzuak emateko nahiko langile egon beharko da, eta zerbitzu osagarri horiek emateko agintari aginpidedunek ezarritako arauak jarraituko dituzte. Zerbitzu horien prezioak enpresa emakidadunak jarriko ditu zerbitzuon autofinantzatze-irizpideak jarraituz. Prezioak urte hasieran jakinaraziko zaizkio Udalari, udalak horien berri izan eta oniritzia eman dezan.

Diru iturri mugatuak dituzten familientzat, hezkuntza eta laguntza gizarte-tarifaren prezio pertsonalizatuak ezarri eta onartu ahal izango ditu Udalak. Tarifa horiek emateko proposamenak Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Sailak aztertu eta proposatuko ditu. Kasuistika zentroko Zuzendaritza Batzordeak aztertu eta definituko du (erregelamenduko 5. artikulua).

Zerbitzua abian jartzeko eguna: 2013ko irailaren 1a

V. TITULUA

8.- Kontratua berraztertzea eta aldatzea

Esleitutako zerbitzuaren ezaugarriak aldatu ahal izango ditu Udalak herriaren onurako arrazoiak daudenean. Berrikusteak eta aldaketak baldintza ekonomiko-administratiboen agirian jasoko dira.

Zerbitzua abian jartzeko aldiaren eta baita gero ere, zerbitzuari neurri batean eragin diezaioketen aldaketak sor daitezke. Aldaketok zerbitzuaren gastu aldagarriak eragingo diete bakarrik.

Esleipendunak kontratua aldatzeko proposamenak egin ahal izango ditu zerbitzua hobetzeko, handitzeko edo zerbitzuaren kostua murrizteko. Udalak proposamen horiek aztertu eta onartuko ditu egokiak direla iritziz gero.

9.- Zerbitzuaren jarraipena

Udalak ahalmena izango du haur hezkuntzako zerbitzuarekin zuzenean lotutako jarduerak ikuskatu eta emakidadunak bere gain hartutako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko.

Udalak emakidari atxikitako eraikin finkeko egoerari zein zerbitzuaren gorabeherari (ordutegiak, tarifak eta abar) buruzko baldintza teknikoak betetzen diren ikuskatu ahal izango du.

Administrazioak zerbitzua kanpotik ikuskatuko badu ere, emakidadunak barne ikuskapena egin beharko du uneoro.

PLIEGO DE CLÁUSULAS TÉCNICAS RECTOR DEL CONCURSO ABIERTO PARA LA ADJUDICACIÓN DE LA GESTIÓN DEL SERVICIO PÚBLICO DE EDUCACION INFANTIL.

TITULO I

Del contrato en general

1.- Objeto

El objeto de este pliego es la regulación de las condiciones técnicas que han de regir en la convocatoria de concurso para adjudicar la explotación del servicio municipal de escuela infantil, (servicio educativo, 0-3 años, primer ciclo de educación infantil) que constituye un servicio social y educativo prestado en **régimen de gestión indirecta mediante concesión**, proporcionando al/la niño/a una educación preescolar acorde con sus necesidades, valiéndose de las técnicas pedagógicas más idóneas y enmarcando la educación en el ámbito cultural del que ella niño/a forma parte.

2.- Ámbito de actuación

Como servicio comunitario la Escuela Infantil es un centro abierto a los/as niños/as del término municipal de Eskoriatza, debiendo cubrir las necesidades de toda la comunidad, limitado únicamente

por el número de plazas.

Atendida la demanda del municipio, el Centro podrá prestar servicio a los niños/as de los municipios de la Comarca.

3.- Horarios

El horario del servicio será de 7'30 de la mañana a las 18'00.

Este horario ha de entenderse como orientativo, pudiendo producirse cambios en el horario final, tanto en lo que respecta al horario de inicio como al de finalización.

TITULO II

Instalaciones educativas

4.- Características de las instalaciones educativas.

- Disposiciones generales. Las instalaciones deberán reunir los requisitos mínimos que establece el decreto 1004/1991.

- La escuela infantil deberá situarse en edificios independientes destinados exclusivamente a uso escolar, sin perjuicio de las excepciones previstas en este Real Decreto.

- Las instalaciones deberán reunir las condiciones higiénicas, acústicas, de habitabilidad y de seguridad que se señalen en la legislación vigente, además de los requisitos que se establecen en este real Decreto.

- Las instalaciones deberán disponer de unas condiciones arquitectónicas que posibiliten el acceso y circulación de los alumnos con problemas físicos, de acuerdo con lo dispuesto en la legislación aplicable.

- Tal como señala este decreto se entenderá por número de puestos escolares el número de alumnos que un centro puede atender simultáneamente de forma que se garanticen las condiciones de calidad exigibles para la impartición de la enseñanza.

b) Disposiciones específicas.-

- El centro deberá contar con un mínimo de tres unidades y reunir los siguientes requisitos referidos a instalaciones y condiciones materiales:

1.- Ubicación en locales de uso exclusivamente escolar y con acceso independiente desde el exterior.

2.- Una sala por cada unidad con una superficie de 2 metros cuadrados por puesto escolar y que tendrá como mínimo 30 metros cuadrados. Las salas destinadas a niños menores de dos años dispondrán de áreas diferenciadas para el descanso e higiene del niño.

2.- Un espacio adecuado para la preparación de alimentos. Cuando haya niños menores de un año, dicho espacio deberá de tener capacidad para los equipamientos que determine la normativa vigente.

3.- Una sala de usos múltiples de 30 metros cuadrados que, en su caso, podrá ser usada de comedor.

4.- Un patio de juegos por cada nueve unidades o fracción, de uso exclusivo del Centro, con una superficie que, en ningún caso, podrá ser inferior a 75 metros cuadrados.

5.- Un aseo por sala destinada a niños de 2 a 3 años, que deberá ser visible y accesible desde la misma y que contará con dos lavabos y dos inodoros.

6.- Un aseo para el personal, separado de las unidades y de los servicios de los niños/as, que contará con un lavabo, un inodoro y una ducha

7.- La escuela dispondrá de un despacho de Dirección, una Secretaría, y una sala de profesores del tamaño adecuado al número de puestos escolares autorizados.

5.- Ratios de niños por aula

Unidades para niños/as menores de un año: 1/6-8.

Unidades para niños/as de uno a dos años: 1/11-13

Unidades para niños/as de 2 a 3 años: 1/14-17

TITULO III

La empresa concesionaria deberá disponer del personal necesario para la adecuada prestación del servicio objeto del contrato

6.- Titulación de los/as maestros/as y personal

Las clases serán impartidas por maestros/as con la especialidad correspondiente, y asimismo, la empresa concesionaria tendrá otros profesionales con la debida cualificación para la atención educativa apropiada en número igual al de unidades en funcionamiento más uno.

En cada seis unidades o fracción deberá haber, al menos, un/a maestro/a especialista en Educación Infantil o profesor/a de Educación General Básica especialista en preescolar.

El personal cualificado a que se refiere el apartado anterior estará formado por Maestros/as especialistas en Educación Infantil o Profesores de Educación General Básica especialistas en Jardín de Infancia.

Los niños serán atendidos en todo momento por el personal cualificado a que se refiere este artículo.

Perfiles lingüísticos

Los perfiles lingüísticos de los profesionales de la empresa concesionaria responderán a los modelos de enseñanza bilingüe adoptados por el centro: perfil lingüístico 1 y perfil lingüístico 2 ó equivalentes (Decreto 47/1993, de 9 de marzo, por el que se establecen criterios para la determinación de perfiles lingüísticos y las fechas de preceptividad en los puestos de trabajo docentes).

La administración Educativa competente aportará los recursos humanos y materiales de apoyo necesarios para integrar a niños con necesidades educativas especiales.

A la concesión quedarán adscritos los bienes que, con carácter mínimo, se describen en el punto 5º del presente pliego y que se consideran imprescindibles para realizar el servicio de escuela infantil.

TITULO IV

Precios del servicio de escuela infantil

7.- Precios del servicio educativo de la escuela infantil.

Se establecen tres tipos de precios teniendo en cuenta las edades de los usuarios:

Jornada completa	Jornada partida
0-1 años.- 228,95euros/mes	0-1 años.- 171,84 euros/mes
1-2años.- 196,54 euros /mes	1-2años.- 147,40 euros /mes
2-3 años.- 77,43 euros /mes	2-3 años.- 0 euros /mes

- El curso escolar se entiende el desarrollado desde el 1 de setiembre al 30 de julio, considerándose el mes de agosto no lectivo ni de servicio.

- El/la usuario/a de este servicio deberá abonar 11 mensualidades, realizándose el pago tal como se indica en el reglamento.

Los servicios asistenciales de alimentación, comedor, transporte, etc. deberán ser atendidos por personal suficiente que seguirá las normas que las autoridades competentes marquen para estos servicios complementarios, siendo la empresa concesionaria la que marque los precios de estos servicios siguiendo criterios de autofinanciación de los servicios prestados, precios que al comienzo de cada curso se comunicarán al Ayuntamiento, para su conocimiento y visto bueno.

El Ayuntamiento podrá establecer y aprobar precios personalizados de Tarifa Social educativa y asistencial para familias que tengan recursos limitados, propuestas que en todo caso analizará y propondrá el Departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento. La casuística la analizará y definirá la Junta Directiva del centro (artículo 5º del Reglamento).

Se establece como fecha para la puesta en marcha del servicio la del 1 de septiembre de 2012

TITULO V

8.- Revisiones y Modificaciones del contrato

El Ayuntamiento podrá modificar por razones de interés público, las características de servicio adjudicado y las revisiones y modificaciones se recogerán en el pliego de condiciones económico-administrativas.

Durante el período de puesta en marcha del servicio e incluso con posterioridad, pueden surgir modificaciones que afecten de manera parcial al servicio y solamente en lo referente a gastos variables del mismo.

El adjudicatario podrá realizar propuestas de modificación del contrato encaminadas a mejorar o ampliar el servicio o a reducir el costo del mismo para el estudio y eventual aprobación de las mismas por parte del Ayuntamiento.

9.- Seguimiento del servicio

El Ayuntamiento tendrá facultad para inspeccionar las actividades directamente relacionadas con el servicio de educación infantil para comprobar los deberes a los que se obliga el concesionario.

El Ayuntamiento podrá inspeccionar el cumplimiento de las condiciones técnicas de la concesión, tanto en lo referente al estado de las instalaciones fijas adscritas a la concesión como a las circunstancias del servicio (horarios, tarifas, etc.)

Esta inspección externa del servicio por parte de la Administración, debe ir acompañada de una inspección interna permanente por parte del concesionario.